

TOKIKO TELEBISTAGINTZAREN DIGITALIZAZIOA EAE-N: HAMAIKA TELEBISTAREN SORRERAREN AZTERKETA

Tesiaren egilea: Amaia Nerekan Umaran

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea

Tesi-zuzendaria: Edorta Arana Arrieta

Tesiaren laburpena:

Telebistagintzak aldaketa nabarmenak jasan ditu azken urteotan. Digitalizazioak telebista deitu izan dugunaren birdefinizioa ekarri du. Denak egokitu behar izan gara aro digital berri honetara, igorleak zein hartzaileak. Maila teknikoan hobekuntzak izan dira: irudiaren eta soinuaren kalitatea handiagoa da orain. Era berean, teknologia digital horren ondorioz, telebista-eskaintza ugaritu da. Kanal berriak agertu dira.

Baina digitalizazioa aldaketa tekniko soila baino gehiago izan da. Teknologia digitala ezartzeko prozesuan, estatu, autonomia eta tokiko telebistagintza berrantolatu da. Nolabait, digitalerako jauzi hori arautzean, etorkizuneko telebista-eredua zein izango den erabaki da. Horregatik, trantsizio-prozesu horretan gobernuek hartutako erabakiak aztertzea funtsezkoa da, gaur egungo telebista digitalaren egitura behar bezala ulertzeko.

Eta horixe da ikerlan honetan egiten dena: EAEko tokiko telebistagintzaren digitalizazioaren azterketa, digitalizazio-prozesu hori bideratzeko, Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak garatutako komunikazio-politikei arreta berezia eskainiz. Izan ere, tokiko telebistek mugimenduan dagoen argazkia eskaintzen dute, eta, azken mugimendu nabarmenen artean, Hamaika Telebista izeneko agentea agertzea dago.

Hamaika Telebista euskara hutsez emititzen duten tokiko telebistak martxan jartzea helburu duen proiektua da. Esparru ezberdinetako enpresek osatzen duten komunikazio-talde berria da; itxuraz inolako harremanik ez duten eta, are gehiago, euren artean lehian dabilen enpresak elkarlanean jartzen dituen taldea. Nola? Zergatik? Zertarako?

Oro har, ez da batere ohikoa ideologia ezberdineko kideak biltzea proiektu komun bat aurrera ateratzeko. Baina, Hamaika Telebista egitasmoaren kasuan, horrela da. Komunikazio-talde honen oinarrian, zeharo desberdinak diren bazkideak bildu dira: Euskarazko Komunikazio Taldea (*Berría* eta *Hitza*), Euskal Komunikabideak Hedatzeko Elkarteak (*Gara* eta *Le Journal*), Corporación Multimedia del Norte (*Deia* eta *Diario de Noticias*); Euskaltel, Elkar, eta Baintet ekoizpen-etxea.

Komunikazio-talde sortu berri hau Eusko Jaurlaritzak tokiko telebistako kanal digitalak esleitzeko egindako lehiaketara aurkeztu zen eta hamar barrutietan aritzeko lizentziak lortu zituen 2007an. Baina, beste hainbat telebista lokalen antzera, oraindik ere, lizentzia horiek guztiak ez ditu gauzatu eta ez ditu hamar telebista lokal horiek martxan jarri. Izan ere, tokiko telebista digitalak kudeatzeko lizentziak lortutako gehienek ez dituzte telebista-kanal horiek abiarazi. Are gehiago, komunikazio-talde batek baino gehiagok, estatu mailako telebistagintzan lekua izateko baimena lortu duenean, esparru lokaletik aldentzeko interesa agerian utzi du.

Gainera, ez dirudi Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezkoen arloan garatu eta onartutako azken arauak (7/2010 Lege Orokorra edota 231/2011 Dekretua) egoera hori konponduko dutenik; kontrara, talde handien mesedetan egindakoak dira, eta kontzentrazioa eta pribatizazioa areagotzen dute.

Testuinguru honetan, EAEko tokiko telebistagintza bidegurutzean dagoela esan dezakegu. Tesi honetan, egoera agoniko honetara nola eta zergatik heldu garen azaltzen saiatzen gara, EAEko tokiko telebistagintzaren digitalizazio-prozesuaren ikerketa sakona eginez eta, era berean, EAEko telebistagintzan sartu berri den Hamaika Telebista izeneko agentearen ibilbidea arakaturaz. Hamaikaren kasu-azterketak errealitate orokorrakoak ulertzen laguntzen gaitu; besteak beste, ikusiko dugu digitalizazioa, aldaketa tekniko bat baino gehiago, komunikazio-egituretan eraldaketak dakartzan fenomeno delako.